

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida



www.zizurkil.com

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

Zizurkilgo Euskara biziberritze plana 2009-2012

uztaila 2011 | 93. zenbakia | UDA



uda kirola

KIROLA:

UDA KIROLA

8-16 urte bitarteko haurrei zuzenduta:

Olaederra Kiroldegian (Villabona): Aerobic, cycling, igeriketa, multiekintzak, tenisa, BTT eta patinak.

Hipika: uztailaren 4tik 15era eta 18tik 29ra Poni-Pottok Elkartean. 98 euro.

Surf eta body board: uztaila eta abuztuan, Zurriolako hondartzan. 67 eta 72 euro.

Piraguismo: uztaila eta abuztuan, Txaraman. 35 euro.

Futbol Kanpusa: 1998-2005 urte bitartean jaiotako haurrei zuzendua. Uztailako azken astea eta abuztuko bi lehenengo asteetan Zizurkilgo futbol zelaian 10:00etatik 13:30era. Asteazkenetan Usabal Kiroldegira joango dira. Astebete 30 euro, bi aste 50 euro eta hiru aste 70 euro.

Informazio gehiago Aurrera Plazako Udal Bulegoetan (943-692495 telefonoan).

ZIMITERIOKO IX. ESKUZ BINAKAKO PELOTA TXAPELKETA:

Uztailako larunbatetan 16'00etatik aurrera partidak Zimiterioan. Finala herriko abuztuko festetan jokatuko da.

GAZTEDIA:

GIPUZKOA EZAGUTZEN:

Ostargik antolatuta, uztailaren 11tik 14ra, 11-14 urte bitarteko gazteentzat Gipuzkoako herri desberdinak ezagutzeko aukera paregabea! Usurbil, Zumaia, Zizurkil eta Donostia. Informazio gehiago Gaztezulon.

EUSKARA:

DIRULAGUNTZAK:

Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen Ikastaroetan parte hartzen duten zizurkildarrei Udalak dirulaguntzak emango dizkie matrikulak ordaintzeko. Informazio gehiago: Aurrera Plazako Udal Bulegoetan.

OPORRETAN EUSKARAZ:

2009-07-22: OPORRETAN EUSKARAZ udaleku irekien amaiera festa.

BESTELAKOAK:

KARTEL LEHIAKETA:

Edozeinek parte har dezake. Lana DIN A4 tamainan aurkeztu beharko da, lau koloretara eta teknika librea erabil daiteke. Testua: "Zizurkilgo jaiak 2011. Irailak 7-8-9-10-11". Lanak **uztailaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoan edo liburutegian. Saria: 175 euro.**

DANTZA ENTSEGUAK:

Ostiraletan, 19:30etik aurrera, Kultur Etxean herritarren dantza entseguak egiten ari dira.

DANBORRADA:

Aurtengoan danborrada antolatu nahi da herriko jaietan eta jendea animatu nahi da izen ematera. Danborradan atera nahi duen orok izen emateko aukera izango du hurrengo lekuetan: Aurrera Plazako Udal Bulegoa, liburutegia, Pasus, Muxkil, Kaixo, Egarri eta Atxulondo tabernak.

2011-07-02: KOADRILEN EGUNA: Programa:

12:30ean: Trikipoteoa.
14:00etan: Bazkaria.
Ondoren: Jolasak.
18:30ean: Berbena.

2011-07-02: ZIZURKIL GOIKO KIROL ESKOLAREN KURTSO AMAIERAKO FESTA: 10:00etan altxorraren bila jokoa; 12:15ean txorizo pintxoa denontzat; 12:30ean urte guztiko argazkien erakusketa eskolan eta DVD banaketa; 13:30ean poteoa eta kalejira trikitixarekin; 14:30ean bazkaria eta 16:30etik aurrera umeekin baldosak eta teilak egingo dituen artisau bat etorriko da.

Anima
zaitez!

Opor zoriontsuak
opa dizkizuegu
zer ote?



irailean bueltatuko da

